



XXIII. ERREPORTARI GAZTEA SARIA

2021

*Andoaingo Udalak Beterri-Aiztondoko eta Buruntzaldeko gazteen arteko **Erreportari Gaztea** izeneko erreportaje lehiaketarako deialdia egiten du, ondorengo hauek direlarik Sariaren oinarriak.*

1.- Sariaren helburua

Andoaingo eta inguruko herrietako gazteen artean komunikazio idatzia euskaraz zuzen ez ezik txukun eta egoki ere egiteko gaitasuna eta kazetaritza-zaletasuna bultzatzea da sari honen helburua. Horrela, bada, saria erabakitzeko irizpide nagusiak honako hauek izango dira: idazketaren egokitasuna, estiloa, datu-bilketa eta zailtasuna.

2.- Lehiaketako partehartzaileak

Lehiaketa honetan parte har dezakete Aduna, Andoain, Asteasu, Astigarraga, Amasa-Villabona, Hernani, Larraul, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil edo Zizurkilen bizi diren edo ikasten duten 2003. eta 2006. urteen bitartean (biak barne) jaiotako neska-mutilek. Erreportajearen egilea pertsona bakarra edota taldea izan daiteke, eta bakoitzak nahi adina erreportaje aurkez ditzake.

3.- Erreportajearen gaia

Aurreko puntuan aipatu diren Beterri-Aiztondo eta Buruntzaldeko hamaika herri horietako gertakari bati edo batzuei buruzkoa izan beharko du erreportajeak. Hori bai, edozein garaitakoa eta edozein alorretakoa izan daiteke gertakaria, hau da, berdin iraganeko urteetan gertaturikoa, berdin gaur eguneko, eta edozein gauzari buruzkoa, baina beti ere nahitaez aipatutako hamaika herri horietakoren batekin edo batzuekin zerikusi zuzena duena. Epaimahaiak salbuespen moduan onar dezake aipatutako herri horietako gertakari bati buruzkoa ez izatea erreportajea, baldin eta erreportajearen aztergaia, oso nabarmen, aparteko interesa eta gaur gaurkoa baldin bada, eta erreportajearen barruan jasotzen diren iritzien emaile batzuk zuzenean elkarriketatu izan baldin badituzte erreportaje honetarako.

Erreportajearen hizkuntza ez sexista erabiliko da, eta berdintasun balioak sustatuz emakumeenganako edonolako jarrera baztertzailak alboratu egingo dira.

4.- Lanen aurkezpena

Erreportajeek gutxienez ere DIN A-4 neurriko 3 orrialde edo 6.000 karaktere izango dituzte, eta ordenagailuz idatzita aurkeztuko dira.



Lan bakoitzaren kopia bat paperean eta beste bat euskarri informatikoan (pdf formatuan) entregatu beharko da 2021eko maiatzaren 25era bitartean Andoaingo Udaletxean, Ataria Herritarren Arreta Zerbitzuan, goizeko 8:00etatik arratsaldeko 14:30era, edota bestela, posta arruntez honako helbide honetara bidalita:

Andoaingo Udala
Euskara Zerbitzua
XXIII. Erreportari Gaztea Saria
20140 Andoain

Lanekin batera gutunazal itxi bat aurkeztu beharko da. Gutunazalaren barruan lanaren egile(ar)en izen-deiturak, helbidea, telefonoa, posta elektronikoaren helbidea eta adina jarri beharko dira. Gutunazalaren kanpoko aldean, berriz, lanaren izenburua. Lanetan bertan ez da egilearen daturik jarri behar.

5.- Saria eta argitalpena

Bi modutako sariak emango dira:

- Sari nagusia: 360 euro eta Xabier Laka eskultoreak Erreportari Gaztea Sarirako berariaz egindako eskultura.

- Andoaingo eskola bakoitzeko lanik onenari saria: Aita Larramendi Ikastola, La Salle-Berrozpe eta Leizaran eskoletako lanik onena sarituko da. Saritutako lan bakoitzeko 180 euro emango dira.

Saritutako lan bakoitzagatik ez da sari bat baino gehiago jasotzerik izango: lan saritu bakoitzeko sari bakarra, alegia. Hortaz, Sari nagusia eskuratzen duena Andoaingo aipatu hiru eskoletako bateko lanik onenaren saria ere dagokiona balitz, kasu horretan jasoko lukeena Sari nagusia izango litzateke, ez ordea bere eskolako lanik onenarena.

Epaimahaiak bere esku izango du *aipamen berezia(k)* egiteko aukera. Aipamen berezirik balego, hauentzat ere saria izango da.

Sari guztiak edo baten bat hutsik utzi ahal izango du Epaimahaiak, baldin eta aurkeztutako lanek, bere iritzian, behar adinako kalitaterik ez badute.

Saritutako erreportajeak argitaratu egingo dira paperean nahiz internet sarean. Saritutako lanez gain, epaimahaiak aukera izango du aurkeztutakoen artean ere hainbat lan hautatzeko interneten erakusgai jartzeko. Udalak eskubidea du lehiaketara aurkeztutako edozein erreportaje argitaratzeko, baina ez zaio horregatik jabetza-eskubiderik eskatu ahal izango.

2021. urteko ekainean emango da ezagutzera Epaimahaiaren erabakia, eta saria ere hilabete berean emango da ekimen berezi batean.



6.- Epaimahaia

Kazetaritzan adituak diren pertsonen osatuko dute Epaimahaia, eta bere erabakia apelaezina izango da.

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarriok ontzat ematea dakar berarekin, eta oinarriak interpretatzerakoan zalantzarik balego Epaimahaiaren iritzia nagusituko da.

Andoain, 2021eko martxo